

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuzentzat?

- Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
- Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuetarako erreferentzia-puntua.
- Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
- Guk bezala hitz egiten dutenekiko kontaktu-puntua.
- Interneten bereizten gaituen puntua.
- Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
- Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuzentzat puntu eta jarrai izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena.



Hemen duzu zure puntu berria
www.domeinuak.eus

haziz doan komunitatea

Zer da eta nor gara?

.EUS domeinua, euskara eta euskal kulturaren komunitatearen lehen mailako domeinua da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.

Zergatik .eus?

- **Identitatea** adierazten du: euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen izaera.
- **Merkatura eta bezeroarengana** gerturazten zaituen domeinua da, bezeroaren hizkuntzan saltzeko eta euskal enpresen kalitate-ziurtagiria adierazteko.
- **Bilatzailen** arau berrietara moldatzen eta identifikatzen laguntzen du.
- **Marka** babesten du, bidegabe erabil ez dezaten.

Norentzat?

- Erakundeak
- Elkarteak
- Enpresak
- Norbanakoak



gure
domeinua

Nola eskuratu?

1

sartu www.domeinuak.eus-en eta begiratu zuk nahi duzun domeinua eskuragarri dagoen.

2

Aukeratu erregistratzailea

3

Jarraitu erregistratzailearen webgunean

Domeinuz aldatzeko

gomendioak:

- Aldaketa **urratsez urrats** egin: ez aldatu domeinuz, zerbitzariz eta webgunez aldi berean.
- Aztertu webgunearen **egitura eta trafikoa**, eduki garrantzitsuenak identifikatzeko.
- Domeinu berria **ez** dadila **indexagarri** egon migrazioa **amaitu arte**.
- Domeinu zaharreko helbide guztiak **Redirect 301** erabiliz bideratu berrira.
- Web zaharrera doazen **esteka** guztiak **eguneratu**: sare sozialetako profiletan, kanpoko erreferentzietan eta abar.
- **Google Webmaster Tools** erabili trafikoaren eboluzioa aztertzeko, erroreak gertatzen diren tokiak identifikatzeko eta bilatzaileei domeinu-aldaketaren berri emateko.
- Domeinu zaharra sei hilabetez **mantendu, esteken ikusgarritasuna** domeinu zaharretik berrira pasa dadin.

Migrazioaren inguruko laguntza eta eskuliburua:
www.domeinuak.eus/eu/migrazioa

Zalantzarik baduzue, laguntzeko prest gaude:
laguntza@domeinuak.eus

eus

info@domeinuak.eus

(+34) 943 08 50 51

@puntu.eus